

Autoebaluazioa

4. ARIKETA

(10 PUNTU)

FSA paketea kontsideratuko dugu.

- a) Instalatu eta kargatu FSA paketea. (0.5 puntu)

FSA paketearen barnean dagoen **ChinookArg** datu-markoa kontsideratuko dugu. Datu-marko honetan Chinook motako izokinen luzera (cm), pisua (kg) eta arrantzatutako kokalekua ageri dira.

- b) **ChinookArg** datu-markoaren egitura lortu. (0.5 puntu)
- c) Irudikatu arrantzatutako izokinen sektore-diagrama arrantzatutako kokalekuaren arabera. Errepikatu gutxienez 80 cm-ko luzera duten izokinekin. (puntu 1)
- d) Argentinan arrantzatutako izokinen artean aurkitu gehienez 60 cm-ko luzera edo gehienez 6 kg-ko pisua duten izokinak. (puntu 1)
- e) Ondorengo sailkapen erregela aplikatuz, izokinak berain pisuaren arabera sailkatzen duten zorizko aldagaia datu markoan sartu: (puntu 1)

$$k_i = \begin{cases} \text{Baxua} & w_i < \text{Mediana} \\ \text{Altua} & w_i \geq \text{Mediana} \end{cases}$$

- f) %1 adierazgarritasun-mailaz aurreko atalean definitutako izokinen sailkapena eta arrantzatutako lekua independenteak diren aztertu. (puntu 1)
- g) Argentinan arrantzatutako izokinen luzera histograma baten bidez grafikoki adierazi eta hipotesi kontraste ez-parametrikoko bat eginez, %5 adierazgarritasun-mailaz, aldagai horren normala aztertu. (puntu 1)
- h) Puyehuen arrantzatutako izokinen luzera histograma baten bidez grafikoki adierazi eta hipotesi kontraste ez-parametrikoko bat eginez, %5 adierazgarritasun-mailaz, aldagai horren normala aztertu. (puntu 1)
- i) Argentinan arrantzatutako izokinen batezbestekoaren puntu-estimazioa eta %5eko tarte estimazio egin. %5 adierazgarritasun-mailaz, batezbesteko luzera 85 cm dela onar al daiteke? (1.5 puntu)
- j) Argentinan arrantzatutako izokinen luzeraren bariantzaren puntu-estimazioa eta %5eko tarte estimazio egin. %5 adierazgarritasun-mailaz, luzeraren bariantza 195 cm² dela onar al daiteke? (1.5 puntu)